

Gutxieneko soldata hemen erabaki

LGS 1.500€

Soldatak hobetu, aberastasuna banatzeko

GREBA HAU ZUREA ERE BADA

10 arrazoi langile migratu eta/edo arrazializatuentzat

¿POR QUÉ ESTA HUELGA TAMBIÉN ES VUESTRA?

10 razones para las personas trabajadoras migradas y/o racializadas

1. Greba langile guztien eskubidea da, baina guztiok ez dugu greba egiteko baldintzarik. Patronalak badaki eta gu zatitzeko erabiltzen du. Ez diezaiegun utzi beraiena egiten.

La huelga es un derecho de todas las personas trabajadoras pero no todas tenemos condiciones para hacer huelga. La patronal lo sabe y lo utiliza para dividirnos. No dejemos que se salgan con la suya.

2. Greba batean parte hartzea egun horretan "gelditu" edo ez gelditzea baino askoz harago doa. Parte hartzeko modu asko daude. Garrantzitsua da errealitateek, ahotsek eta gorputzek presentzia izatea. Greba hau GUZTIONA da, GUZTION ARTEAN eraikitzen dugu.

Participar en una huelga va mucho más allá de poder "parar" o no ese día. Hay muchas formas de participar. Es importante que las diversas realidades, voces y cuerpos tengan presencia. Esta huelga es DE TODAS, ENTRE TODAS la construimos.

3. Greba, eskubideak lortzeko tresna bat da. Historikoki, gaur egun kendu dizkiguten eskubide asko lortzeko aukera eman digu.

La huelga es una herramienta para conseguir derechos. Históricamente nos ha permitido conseguir muchos de los derechos que hoy nos están quitando.

4. Borroka honekin irabazten denak guztioi egiten digu mesede. Gutxieneko soldataren igoerak hobekuntza ekarriko die langile guztiei. Baita lan hitzarmenik gabe, kontraturik gabe daudenentzat eta/edo egoera administratibo irregularrean daudenentzat ere. Ez pentsa greba honek ez dizunik eragiten. Agian ez duzu jakingo, baina zu ere inplikaturik zaude.

Lo que se gane con esta lucha nos beneficia a todas. La subida del salario mínimo, significará una mejora para todas las personas trabajadoras. También para las que no tienen convenio, o están sin contrato y/o en situación administrativa irregular. No creas que esta huelga no te afecta. Tu también estás implicada.

5. Greba honek, batez ere, soldata gutxienekoaren azpitik dauden sektore eta pertsonengan arreta jartzen du. Protagonismoa ematen die beste greba batzuen erdigunean beti egon ez direnei. GREBA HONEK BEREZIKI ERAGITEN DIE SEKTORE PREKARIZATUENI: sektore feminizatuak, arrazializatuak.

Esta huelga pone el foco especialmente en los sectores y en las personas que están por debajo del mínimo. Da protagonismo a quienes no siempre han estado en el centro de otras huelgas. ESTA HUELGA AFECTA ESPECIALMENTE LOS SECTORES MÁS PRECARIZADOS: los sectores feminizados, racializados.



M17 GREBA OROKORRA

LAB

**EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA**

6. Langile guztiek lan-eskubideak dituzte, administrazio-egoera, jatorria edo arraza edozein dela ere. Hala ere, askotan, pertsona migratuen eta/edo arrazializatuen eskubideak ez dira beti betetzen. Arrazista eta koloniala den soldata arrakala dago.

TODAS las personas trabajadoras tienen derechos laborales, independientemente de la situación administrativa, la procedencia o la raza. Sin embargo, muchas veces, los derechos de las personas migradas y/o racializadas no siempre se cumplen. Existe una brecha salarial que es racista y colonial.

7. Bizileku-baimena lan-kontratuaren baldintzapean dago. Langile migratuek eta/edo arrazializatuek lan-kontratu bat izan behar dute paperak erregularizatu ahal izateko. Askotan, kontratu irrealak onartzea beste aukerarik ez dago: lan egiten diren ordu guztiak jasotzen ez dituztenak edo beheragoko kategoriak aitortzen dituztenak. Patronalak erabiltzen du behar hori kontratazioaren kostuak murrizteko eta beraien irabaziak handitzeko. Horrek ondorio zuzenak ditu langileengan: kotizazio gutxiago, prestazio gutxiago, eskubide gutxiago eta SOLDATA BAXUAGO.

El permiso de residencia esta condicionado al contrato de trabajo. Las personas trabajadoras migradas y/o racializadas, necesitan tener un contrato de trabajo para poder regularizar los papeles. Muchas veces no queda otra opción que aceptar contratos irreales: que no recogen todas las horas que se trabajan o que declaran categorías inferiores. La patronal se abusa de esta necesidad para reducir costes y aumentar ganancias. Esto tiene consecuencias directas sobre las trabajadoras: menos cotización, menos prestaciones, menos derechos y MENOS SALARIO.



8. Espekulazioa, xantaia eta mehatxuak patronalaren DNAn daude. Administrazio-egoera, prekarizazioa eta beldurra bere alde erabiltzen dituela. Horrek guztiak izen bat du, eta laneko arrazakeria deitzen zaio. Hainbat sektoretan, abusua etengabea da. Lankide askok lan egitea beste aukerarik ez dute, dagokiena baino diru gutxiagoren truke, paperak behar direlako. Gutxieneko soldata bat bermatu ahal izatea garrantzitsua da horri guztiari aurre egiteko ere.

La especulación, el chantaje y las amenazas están en el ADN de la patronal. Que utiliza a su favor la situación administrativa, la precarización y el miedo. Todo esto tiene un nombre y se llama racismo laboral. En diferentes sectores, el abuso es constante. Muchas compañeras no tienen más opción que trabajar por menos dinero del que les corresponde porque necesitan los papeles. Poder garantizar un salario mínimo es importante también para combatir esto.

9. Gutxieneko soldata ez da soilik paperak dituztenentzat. LANGILE GUZTIEK BERMATUTA IZAN BEHARKO LUKETE BEREN GUTXIENKO SOLDATA. Soldata horrek lan egindako lanaldiarekiko proportzionala izan behar du. Ez du balio gutxieneko soldatara iristea, baina 40 orduetik gorako lanaldiak izatea.

El salario mínimo no es sólo para quiénes tienen papeles. TODAS LAS PERSONAS TRABAJADORAS DEBERIAN TENER GARANTIZADO SU SALARIO MÍNIMO, que tiene que ser proporcional a la jornada trabajada. No vale llegar al salario mínimo pero tener jornadas laborales que superen las 40hs.

10. Greba hau diruaz haratago doa, greba hau GUZTIENTZAT IZAN BEHAR DUTEN ESKUBIDEEZ doa, jatorria, paperak edo azalaren kolorea kontuan hartu gabe. Aitortza, erreparazioa eta justizia dira greba honen ardatzak. Gehien dutenak, beste batzuk esplotatu eta arpilatzearen kontura, lasai-lasai jarraitu ez dezaten.

Esta huelga va más allá de dinero, esta huelga va de DERECHOS QUE TIENEN QUE SER PARA TODAS independientemente del origen, los papeles o el color de la piel. Esta huelga va de reconocimiento, reparación y justicia. Va de que quienes más tienen, a costa de explotar y saquear, dejen de salir de "ro-sitas".



M17 GREBA OROKORRA

LAB
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA